



#### **4.8 DIRULAGUNTZA LERROA: ERRENTERIAKO DBH-ko IKASTETXEETAN BAKARRIZKETA SAIOAK 2021 . OINARRI ESPEZIFIKOAK**

##### **1. Dirulaguntzaren xedea**

Lerro honen xedea da Errenteriako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egingo den lehiaketa baterako jarriko diren sariak diruz laguntzea. Bakarrizketa lehiaketaren helburua da herriko ikastetxeetako ikasleen artean euskaraz ahozko diskurtsoak eraikitzekeo gaitasuna lantzea eta jendaurrean aritzeko trebetasuna handitzea.

##### **2. Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua**

Dirulaguntza hauek 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango dira. Betiere partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1030.480.02.335.10

Dirulaguntzak: sariak: 3.000 €

##### **2. Parte hartzeko oinarria**

Lehiaketa ikastetxean bertan egingo da.

- a) Lehiakideek banaka edo binaka hartu dezakete parte. Eta bi maila bereiziko dira:
  - DBH 1. eta 2.
  - DBH 3. eta 4.
- b) Saio bakoitzean bakarrizketa bat edo 4/5 txiste kontatu beharko dira. Txisteen artean nolabaiteko lotura bat egin beharko da.
- c) Kontaketak, gutxienez, 5 minutuko iraupena izango du, eta gehienez 10 minutukoa.
- d) Kontaketak egiteko unea ikastetxe bakoitzak aukeratuko du. (atseden ordua...)

##### **3. Dirulaguntza eskaera egiteko epea eta lekua**

Ikastetxe bakoitzeko lehiaketa martxoaren 15 eta 25a bitartean egin beharko dira.

Ikastetxe bakoitzak Udaleko Hizkuntza Politika Sailari bideratuko dio eskaera martxoaren 26a baino lehen.

Sari banaketa udal jarduera batean emango da. Eta bertan agertuko dira saritu guztiak.



#### 4. Epaimahaia

Ikastetxe bakoitzeko epaimahaia, ikastetxeak berak antolatuko du. Gida gisara, hauek izan daitezke partaide:

- Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria.
- Ikastetxeko Euskara Mintegiko buruak.
- Ikastetxeko Ikasleen Batzordeko ordezkari bat.
- Zuzendaritzak proposatutako edonor.

#### 5. Baloratuko diren alderdiak.

- I. Kontakizunaren/ txisteen umorea.
- II. Kontakizunaren arintasuna eta naturaltasuna, bat-batekotasun itxura.
- III. Saioaren jarraikortasuna, trinkotasuna eta luzera (zenbat eta kohesio gehiago izan hobea).
- IV. Erabilitako hizkuntzaren ulergarritasuna eta kalitatea.

#### 6. Sariak

	<b>DBH 1/2</b>	<b>DBH 3/4</b>
<b>IKASTETXE BAKOITZEKO IRABAZLEENTZAKO SARIA</b>	<b>1. saria 70 €</b> <b>2. saria 50 €</b> <b>3. saria 25 €</b>	<b>1. saria 80 €</b> <b>2. saria 60 €</b> <b>3. saria 40 €</b>

Saria dutenei, diploma eta bale bat emango zaizkie.

Balea gutunazal batean joango da eta balearekin batera, balearen balioa dirutan sartzeko kontu korrante baten zenbakia egiaztatzeko dokumentua.

*Oharra: Ordainketa egiteko derrigorrezkoa da Udal Hizkuntza Politika bulegoan Kontu Korrantea egiaztatzeko dokumentua aurkeztea. Edo emailaz bidaltze [euskara@errenteria.eus](mailto:euskara@errenteria.eus) era.*

Legeri jarraituz sariei dagozkien zergak aplikatu dakizkieke.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira epaimahaiak kontsideratzen badu nahikoa maila ez dagoela.

#### 7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena sinatu ondoren egingo da. Dekretu horretan jasoko dira irabazleen izenak eta Udaleko



webgunean argitaratuko dira. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da ERRENTERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

INFORMAZIOA: Udal Hizkuntza Politika departamentua. Tf. 943449613. email: euskara @errenteria.eus.